



Itxi -ireki batean bizi gara  
sudur gainean.

**Zer den nork daki?**

# Lurra izerditan



EDIDER ELBAR

MUNDUARI ADI

KLIMA LARRIALDIA

# Gero eta planeta beroagoa



## 1 ZER DA KLIMA ALDAKETA?

Klima aldaketa Lurrean edota eskualde jakin batean denboran zehar gertatzen den klimaren aldaketa da. Aldaketa horiek Lurraren barruko nahiz kanpoko prozesuek eragindakoak izan daitezke, baina baita giza-kiak eragindakoak ere. Dena den, gaur egun, klima aldaketa nagusiki gizakiaren jarduerari leporatzen zaio, erregai fosilen erabileraren ondorioz sortutako berotegi efektuari. Egoera larria bihurtu denez, *klima larrialdia* deitzen hasi zaizkio fenomenoari.

## 2 ZERGATIK ARI DA BEROTZEN PLANETA?

Enpresetan, nekazaritzan eta industrian erabiltzen diren erregai fosilek —gasa, petrolio eta ikatzak, nagusiki— gasak isurtzen dituzte atmosferara; ondorioz, lurraren azala berotu, eta kalte egiten zaio ozono geruzari. Eguneroko ekintzek ere gas isuri asko sortzen dituzte: industria jarduerak, nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboak, autoan bidaiatzeak, hondakinak gaizki kudeatzeak, objektuak etengabe erosi eta botatzeak, egunero energia gaizki erabiltzeak...



## MUNDUARI ADI

### 3 ZER GERTATUKO DA PLANETA BEROTUZ GERO?

5.500 milioi herritar egongo dira kalteak pairatzeko arriskuan 2050erako. Adituek uste dute 9.700 milioi biztanle izango direla munduan; beraz, erdiak baino gehiago egongo lirateke arriskuan.

#### Espezieen galera munduan:

Planeta berotzeak eragina izango du animalia batzuen bizilekuetan, eta, horren ondorioz, espezie ugari galduko dira. Ereku hotzetakoak izango dira kaltetuenak. Ikerketa batzuen arabera, klima aldaketak bere horretan irauten baldin badu, hurrengo hamarkadetan munduko espezieen %25 galtzeko arriskuan egon daitezke. Esaterako, hartz zuria eta Adelia pingüinoak.

#### Suteak:

Inoiz ez bezalako beroaldiek sute larriak eragin dituzte basoetan. Ezohiko tenperatura altuek eta ekaitz lehorretako tximistek eragin dituzte suteak. Gogoratu iaiz izan ziren sute handi bezain larriak: Amazoniakoak, eta bereziki Australiakoak.

#### Itsasoa:


Zientzialariek egindako aurreikuspenen arabera, itsasoaren maila



● Amazoniako iazko suteen osteko argazki bat, Brasilen. JOEDSON ALVES / EFE

metro bat igoko da 2100erako, eta milioika pertsona lekualdatu beharra ekar dezake. Poloetako, gune hotzetako eta goi mendietako izotza urtzen ari da, eta, horren ondorioz, itsasoaren maila etengabe igotzen ari da: are, berotzeak

egungo joerari eusten badio, 2100. urterako metro bat baino gehiago igo liteke itsas maila, NBERen ikerketa taldearen arabera. Eta ohar-tarazi du horrek berekin ekar leza-keela milioika pertsonak lekualdatu behar izatea.



# 39°

#### ADI DATUARI!

Igeldon (Gipuzkoa), 2019ko uztailearen 23an, azken 92 urteotan neur-tutako tenperaturarik altuena erregistratu zu-ten: 39 gradu.

### 4 ZER GERTATUKO DA EUSKAL HERRIAN?

Munduan gertatzen ari den klima aldaketak ere eragina dauka Euskal Herrian. Kostaldeko herrietan nabaritutako da gehien, baina espezie batzuk ere arriskuan egon litezke.

#### Itsasoa

Itsas mailaren igoerak bereziki eragingo du kostako tokietan: Aturri inguruan, Baionan, ibai ertzeko bi aldeek izango dute uholde arriskua; Donibane-Lohizune, Irun, Donostia-Pasaia, eta Donostian Zurriolako hondartza ur azpian geratu daiteke 2100. urtean; Orion, Zarautzen, Urdabain, Bilboko itsasadarrean eta Muskizen ere eragin dezake itsasoaren igoerak.

#### Espezieen galera Euskal Herrian

Klima aldaketa ikertzen duen BC3 euskal agentziaren arabera, Euskal Herrian 88 espezie egon daitezke arriskuan. Horien artean landareak, ugaztunak, anfibioak, hegaztiak eta arrainak egongo lirateke. Giza-karen jardueraren eraginez egongo lirateke arriskuan, eta, diotenez, oraindik lan egin daiteke horiei eusteko. Argazkian ageri diren espezie hauek nabarmendu dituzte.



UGATZA



MITXOLETA BIOLETA



## KLIMA LARRIALDIA

### 5 ZER EGIN DAITEKE KLIMA LARRIALDIAREN KONTRA?

**Jantziak.** 2000. urtean, 50.000 milioi jantzi ekotzi ziren; 2015. urtean, berriz, hori halako bi. Asko material toxikoz eginda daudenez, ura kutsatzen dute. Gainera, munduaren beste muturrean ekotzitako produktuak Euskal Herrira ekartzean, kutsadura areagotu egiten da, hegazkinen eta itsasontzien bidezko garraioek asko kutsatzen dutelako. Material toxikorik gabe egindako jantziak eros daitezke, eta jantziak birziklatu.



**Garraioa.** Autoen CO2 isuriak isurketa guztien %10 dira; alternatiba ona izan daiteke garraio publikoa erabiltzea, edo bizikletan edo oinez ibiltzea. Danimarkan, bizikletaz egiten dira herri barruko bidaien %18, eta Herbehereetan, %27.

#### Energia.

Elektrizitatean aurrezteko, beharrezkoa ez denean, argia itzali behar da, energia asko aurrezten baita hala.

**Berrerabili eta birziklatu.** Objektuak berrerabiltzea eta birziklatzea aukera ona izan daiteke, baina are hobea da gutxiago kontsumitzea.



### 6 Soslaia

## Greta Thunberg

17 urteko suediar bat da Greta Thunberg. Erreferente bilakatu da klimaren larrialdiaren kontrako borrokan. 2018ko abuztuaren 20an, *klimaren aldeko eskola greba* izeneko protestari ekin zion: parlamentuaren aurrean eseri, eta gobernuari exijitu zion Parisko Itunean onartutako neurriak martxan jartzeko. 21 egunez egin zuen ekintza bera, irailaren 9an hauteskundeak izan ziren arte. Ez da gelditu hauteskundeen ostean ere: ostiralero, uko egin dio eskolara joateri, eta greba egiten du parlamentu aurrean. Ordutik, Thunbergen ahotsari beste milaka gazterenak batu zaizkio. Ostiralero grebetatik hartu zuen izena ekinaldiak: Fridays For Future.



● Greta Thunberg Suediako parlamente kanpoaldean. ANDERS HELLBERG

